

JAKINTITZAK

Azkeneko YAKIN irakurtzen ari nintzan. "adimen goitarren berezitasuna" artikulua en atzean, 80'gn orrialdean, iztegitxo bat dakar, eta amaian' oar au: "Idatzlan sorotik atera ezkerro itz auek beren indar guztia galdu lezake-te. Orregatik, otoi dagizut, arren, beren baratzen aztertu ditzazula". Itz auetre' eman didate gai, orain esatera noan ontarako.

Itz oiek' bide-eman didatela esan dut. Ez dut iñor epaitu nai. Ezta gauza berririk esan nai ere; guztiok dakizuten zertxobait zantatu baizik. Nor da bere buruaren jabe; eta baidu eskubide bere gauzetan nai bezela jokatzeko. Eta ala bear ezkerro, bere gauzak adierazteko' erabili ditzazke itzak, bai zarrak eta bai berriak, berauen izatezko esanaletan edo irudibidezkotan (metaforikotan) ere bai. Au' erriari idazten edo jakintza egiten ari ez danean batezere. Zera izango litzake emengo lege nagusia: esan nai dezaguna' argi eta garbi edierazi. Gaiñerakotan' "pictoribus atque poëtis quidlibet audendi semper fuit aequa potestas". Ona, ba, nik idazle bakoitzari' bere eskubide guztiak agurtu!

Baña auxe idaroki-edo nai nuke. Gauza

berriak itz berriz esaten asi gaitzenezan' eman dezaio gula itz bakoitzari bere esanai objetiboa; eta itz orrek, bai bere auzokoekin dagonean eta bai bere bakarrean, esan dakigula bere izena argi eta garbi: beti berdin.

Elederketan ari geranean' bearrezko izaten ditugu irudiak eta izjokuak. Orduan, auzkoetatik zeaztu bearko da itz baten esanai justua. Baña Jakintzan' eginda daude gutxi asko ideak, eta nori bere izena eman bear zaio. Nastu egiten dira bestela, eta kalte aundia egin dezaio kete jakintzari. Orregaitik, kultur-itx berriak asma ditzagunean' arretaz ibili bear dugu itx berriekin burubarrukoa izatez eta berez esaten.

Iñoiz edo noiz, ez daukagula euskal-itx egoki egokirik idea bat adierazteko?— "Dagonean' bon bon, ez dagonean' egon"—. Artu lasai erderatik, euskerazko egokirik ez dagoken bitartean. O-be duzu erdal-soñekoz dotore dotore jantzi, euskerazkoz' zarpazar ~~uta~~ baño-ta. Jakintza egitekoan' ez ja ainbat ardura olako edo alako izkeratan egotea. Baña ideak neurri neurrian esatea' orixe bai dala arduradun jakintzan.

Joxe-Agustin, ez dut au zuregatik esan. Ez nuan, konejutxo bat bezela, zu narrutzeko asmorik-baña. Olaxe gertatu da. Zer egingo dugu, ba? Barkatuko didazu, e! Lagunak gera-ta. Bai Motil!

Fernando Mendizabal (ofm)

(Arantzazu-ko teologari).